

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ekonomia Sustatzeko Saila****Bizkaiko Foru Aldundiaren 157/2021 FORU DEKRETUA, azaroaren 30ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautza eta Artisautzako Erakundeen Erregistroa arautzen dituen.**

2018ko uztailaren 24ko 107/2018 Foru Dekretuaren bidez, eguneratu egin zen Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroari buruzko arauketa; 1988ko martxoaren 30eko 37/1988 Foru Dekretuaren bidez sortu zen erregistro hori. Ordutik hona metatutako esperientziak gomendatzen du eguneraketa berri bat egitea eta egunean jartzea Erregistroaren funtzionamendua, Bizkaiko artisautzaren errealitatetik hurbilago egon dadin.

Artisautza-jardueratzat zer hartzen den eta zer ez argitzearren, Bizkaiko Foru Aldundiak sektore horren sustapenerako egiten dituen jarduketan ondorioetarako, artisautzaren definizioa eguneratu da foru-dekretu honetan.

Bestalde, herritarrek administrazioen eskuetan dauden datu eta dokumentuak ez aurkezteko duten eskubidea eraginkortasunez gauzatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak dagoeneko sortua duenez administrazioen arteko informazio-trukerako elkarreragingarritasun-nodoa, gutxiago izango dira eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentuak. Aldi berean, erregistroarako behar diren datuak berrikusi dira eta sektorearen une bakoitzeko egoerari buruzko ondorioak ateratzeko beharrezkoa den informazioa bakarrik eskatuko da.

Halaber, hobetu egin da Artisautzako Erakundeen Erregistroan egoteko baldintzak etengabe betetzen direla kontrolatzeko prozedura; izan ere, erregistratzea borondatezkoa eta doakoa bada ere, gutxieneko baldintza batzuk bete behar dira bertan egoteko. Gainera, berekin dakartza zenbait betebeharrak, hala nola informazio eguneratua jakinaraztea erregistratutako datuetan aldaketaren bat gertatzen denean.

Xedapen honen xede den gaiaren gaineko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagoiko, hala ezartzen baitu Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoko Foru Organoen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 6.1 eta 7.a)12 artikuluetan, zeinek zehazten duten lurralde historikokoetako foru-organoek eskumen eskusiboa dutela, besteak beste, artisautzaren arloan.

Ekonomia Sustatzeko Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 17ko 207/2019 Foru Dekretuak Ekonomia Sustatzeko Foru Sailari esleitzen dio artisautzaren arloko jarduna; beraz, agerikoa da sail horrek eskumena duela Artisautzako Erakundeen Erregistroari eta Bizkaiko Artisau Lanbideen Bildumari buruzko araudia eguneratzeko (arestian aipatua).

Foru Dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean (aurrerantzean 39/2015 Legea) aurreikusten dira eta Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira.

Orobat genero-ikuspegia jaso da foru-dekretu hau prestatzeko orduan, arau hauetan ezarritakoa betetzeko: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa; 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa (dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago aurrez ikusita).



Era berean, kontuan hartu da zer xedatzen duen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuak, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Dekretu hau egiteko, genero eraginaren aurre ebaluazioko txostena, kontrol ekonomikoaren txostena eta departamentuko txosten juridikoa bete dira.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetakoa gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onets ditzan. Horrela, bada, kasu honetan Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio foru-dekretuaren proiektu hau proposatzea.

Hori dela bide, Ekonomia Sustatzeko foru-diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2021eko azaroaren 30eko bileran aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

#### I. KAPITULUA

#### XEDAPEN OROKORRAK

##### **1. artikulua.— Helburua**

1. Foru-dekretu honen bidez, definitu eta mugatzen da zer den artisautzako produktuak egiteko jarduera; helburua da Bizkaiko Foru Aldundiak artisautza jarduera sustatu eta piztea.

2. Bestalde, aurrekoaren osagarri gisa, dekretu honen helburu da, era berean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundearen Erregistroaren funtzionamenduaren araubidea arautzea.

##### **2. artikulua.— Organo eskuduna**

Araudi hau aplikatzeko organo eskuduna Ekonomia Sustatzeko Sailaren titularra izango da.

#### II. KAPITULUA

#### ARTISAUTZA

##### **3. artikulua.— Artisautzaren definizioa**

Artisautza da elikadurarako ez diren produktuak sortu, ekoitzi, eta eraldatzea eta ondasun eta objektuak zaharberritzea helburu duen enpresa-jarduera; bertan, manufakturako sistema bereziak erabili behar dira, non funtsezkoa izan behar den pertsonen parte-hartzea ekoizpen- eta akabera-prozesua kontrolatzeko. Jarduera hori egiteko teknika tradizionalak ezagutu eta menperatu behar dira, dela lehengaiak hautatu eta haien tratamendua egiteko, dela lehengaion konbinazioari zentzu estetikoa emateko. Emaizta produktu indibidualizatu bat izan behar da, bakarra, kalitatezkoa, sormen-balioa duena eta ekoizpen industrial mekanizatuaren edo serie handiko ekoizpenaren bidez lortu ezin dena; haren ekoizpen-prozesuan, artisautzako teknikekin egindako lana erabakigarria izango da eta produktuari balio bereizgarria emango dio.

##### **4. artikulua.— Artisautza-jarduera**

Dekretu honen ondorioetarako eta, oro har, Bizkaiko Foru Aldundiarekiko harremanetarako, bakarrik hartuko dira artisautza jardueratzat indarrean dagoen Bizkaiko Artisan Lanbideen Bilduman zehaztutakoak.

**5. artikulua. — Artisautzako erakundeak eta elkarteak**

1. Artisautzako erakundeak dira Bizkaiko Artisau Lanbideen Bilduman jasotako jarduera bat edo batzuk egiten dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

Artisautzako erakundeen tipologiaren barruan autonomoen erregimenean dauden pertsonak, merkataritza-sozietateak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak daude.

2. Artisautzako elkartetzat jotzen dira Bizkaian artisautza sustatzea helburu duten elkarteak eta fundazioak.

## III. KAPITULUA

**ARTISAUTZAKO ERREGISTROA****6. artikulua. — Erregistroaren helburua**

Erregistroaren helburua da artisautzako erakundeen eta artisautza elkarten borondatezko inskripzioa, Foru Aldundiak bere eskumenak erabilita halakotzat jo ditzan.

**7. artikulua. — Erregistroaren izaera**

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroak administrazio-izaera du eta doakoa, borondatezkoa eta publikoa da, foru-dekretu honetan ezarritako eran.

2. Erregistro honetan inskribatzeak ez ditu interesdunak salbuesten indarreko lege-riaren arabera beharrezkoak diren gainerako baimenak izan eta inskripzioak egin behar izatetik.

3. Erakunde interesdunek emandako datuak bakar bakarrik erabiliko dira Artisautzako Erakundeen Erregistroan ezarritako helburuetarako; horri dagokionez, zorrotz beteiko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa, eta arlo horretan aplikatu behar den araubidea.

4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroko datu hauek publikoak izango dira:

- a) Merkataritzako marka.
- b) Izen-abizenak edo artisautzako erakundearen izena.
- c) Lanbidea edo egiten den jarduera.
- d) Jardueraren deskripzioa.
- e) Egindako produktuak, ekoizpen-prozesua, lantegia eta erabilitako makinak/lanabesak erakusten dituzten argazkiak.
- f) Enpresaren eta, hala denean, lantegiaren egoitza soziala.
- g) Telefono-zenbakia.
- h) Erakundearen webgunea eta helbide elektronikoa.
- i) Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroko erregistro-zenbakia.

Datu horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean argitaratuko dira, eta herritarren eskura egongo dira.

5. Edozein bide erabiliz eskaerak egin, eta interesdunek administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaeraren hartzailea den organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

6. Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduen arduradunaren aurrean: datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko («ahaztua izateko eskubidea»), haien tratamendua



mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakien xede ez izatekoa (barne harturik profilen sorrera) ere, baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan errebotatu ahal izango du emandako baimena. Horrez gain, eskubidea du erreklamazioa jartzeko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzan. Gai honi buruzko informazio guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean dago eskuragarri, datuen babesari buruzko atalean (<https://web.bizkaia.eus/eu/datuen-babesa>).

**8. artikulua. — Erregistroaren administrazio-atxikipena**

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroa Ekonomia Sustatzeko Foru Sailari atxikita dago.

2. Ekonomia Sustatzeko Foru Sailari dagokio, Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiaren bidez, Erregistroa kudeatzea, eskatzaileek aurkeztutako idazkiak eta dokumentazioa aztertu eta onartzea, idazki-dokumentuok konpultatu eta autentifikatzea, erregistro-inskripzioak egitea eta Erregistroak ondo funtzionatzen duela bermatzeko gainerako jarduketak egitea.

**9. artikulua. — Erregistroaren antolamendua**

Artisautzako Erakundeen Erregistroak bi atal izango ditu:

- Lehen Atala: artisautzako entitateak.
- Bigarren Atala: artisautzako elkarteak.

**10. artikulua. — Lehen atala: artisautzako erakundeak**

1. Erregistroan inskribatu ahal izateko, artisautzako erakundeek baldintza hauek bete behar dituzte, inskribatzeko eskabidea egiten dutenean zein inskribatuta dauden bitartean:

- a) Egoitza soziala eta fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
- b) Ekoizpen-zentroa edo lantegia Bizkaiko Lurralde Historikoan kokaturik egotea.
- c) Artisautza-jarduera bat edo gehiago egitea; halakotzat jotzen dira dekretu honen 3. artikuluan eta Bizkaiko Artisan Lanbideen Bilduman jasotakoak.
- d) Artisautza-jarduera ez egitea noizean behin, modu osagarrian edo aldi baterako.
- e) Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egotea aipatutako artisautza-jarduerei dagokien epigraferen batean.
- f) Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean alta emanda egotea.
- g) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen III. tituluaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo 4/2018 Foru Arauan ezarritako betebeharrak betetzea.
- h) Produktu kosmetikoak fabrikatzen dituzten erakundeen kasuan, 39/2015 Legearen 69. artikuluan araututako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu izana Sendagai eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziari, Produktu Kosmetikoak arautzen dituen otsailaren 23ko 85/2018 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

2. Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiak, noiz-nahi, BEAZ enpresaren bitartez, bisita egin ahal izango du, ofizioz, aurreko eskakizunei buruzko informazioa biltzeko.

**11. artikulua. — Bigarren atala: artisautzako elkarteak**

1. Erregistroan inskribatu ahal izateko, artisautzako elkarteek baldintza hauek bete behar dituzte, inskribatzeko eskabidea egiten dutenean zein inskribatuta dauden bitartean:

- a) Egoitza soziala eta fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.



- b) Elkartek helburu sozial hau izatea: artisautza bultzatu eta sustatzea, Bizkaiko kultura ondasun gisa.
- c) Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egotea.
- d) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen III. tituluaren, Emakumeen eta Gizonen berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo 4/2018 Foru Arauan ezarritako betebeharrak betetzea.
- e) Bizkaian helbidea duten hiru kidek, gutxienez, osatuta egotea.

#### IV. KAPITULUA

#### ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROZEDURA

##### 12. artikulua.— *Eskabideak aurkeztea*

1. 39/2015 Legearen 14.2 eta 14.3 artikuluen nahitaezko xedapenekin bat, erregistroan inskribatzeko eskabidea Internetez egingo da, Ekonomia Sustatzeko Saileko bulego birtualaren bidez: [www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus) – Izapideak.

Eskaera aurkezteko ekipamendurik edo interneterako konexiorik ez izatekotan, Ekonomia Sustatzeko Sailean horretarako gaitutako ekipamendua erabili ahal izango da.

2. Bulego birtualera sartzeko, bertan adierazten diren identifikazio eta sinadura elektronikoko edozein bide erabili ahal izango da indarrean dagoen araudiaren arabera. Bide horiei esker, pertsona juridikoen izenean eskaerak egin daitezke. B@kQ txartela identifikazio eta sinadura elektronikorako bide gisa erabiliko bada, jakinarazten da Bilboko Obispo Orueta kaleko 6. zenbakian dagoen Ekonomia Sustapen Sailaren egoitzan eskuratu ahal dela.

3. Horrez gainera, eskabidea aurkezteko, erakundeak alta emanda egon behar du Ekonomia Sustatzeko Saileko Erakundearen Erregistroan, zeina Bizkaiko Foru Aldundia-  
ren 2016ko ekainaren 14ko 109/2016 Foru Dekretuak araututa dagoen.

Egoera horretan ez badago, erakundeak inskribatzeko eskabidea bete beharko du, Artisautzako Erakundearen Erregistroan eskabidea izapidetu baino lehen.

4. Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa ezarritakoarekin bat eta arlo horretan aplikatu behar den araubidearekin bat tratatuko dira datu pertsonalak.

5. Eskabideekin batera, ezarritako dokumentazioa aurkeztu behar da; horretarako, gorago aipatu den atari birtualean agiriak eransteko dagoen sistema erabili behar da.

##### 13. artikulua.— *Nahitaezko dokumentazioa*

1. Erregistroan inskribatzeko eskabideak betetzean, dokumentazio hau erantsi beharko da:

- A) Artisautzako erakundeak
  - a) Eskabide-orria, behar bezala beteta; bulego birtualaren bidez lor daiteke.
  - b) Egindako lanak edo produktuak erakusten dituzten lau argazki.
  - c) Piezen ekoizpen-prozesua, lantegia eta erabilitako makinak/lanabesak erakusten dituzten lau argazki.
  - d) Produktu kosmetikoak fabrikatuz gero, foru-dekretu honen 10. artikuluan zehaztutako adierazpena.
- B) Elkartek:
  - a) Eskabide-orria, behar bezala beteta; bulego birtualaren bidez lor daiteke.
  - b) Elkarteko pertsona eskudunaren erantzukizunpeko adierazpena, non egiaztatzen den elkarteko kide diren artisautzako enpresetatik zenbatek duten egoitza soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan.



2. Dokumentazio hau, 10.g), h) eta 11.e) artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eskatzen da. Eskualde Garapenerako Zerbitzuak, Bizkaiko Elkarrengarritasun Nodoaren bidez eta dagozkion elkarrengarritasun-zerbitzuen bidez, aurkeztu diren eskabideen administrazio-izapideak egiteko, 10. eta 11. artikuluetan ezarritako gainerako betekizunak egiaztatu eta kontsultatuko ditu, 39/2015 Legearen 13., 28. eta 53. artikuluetan aitortutako eskubideei kalterik egin gabe.

Arrazoi teknikoak direla eta, elkarrengarritasuna posible ez bada, Ekonomia Sustatzeko Saileko Eskualde Garapenerako Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

#### **14. artikulua.— Eskabidea zuzentzea**

Eskabidea jasotakoan, ez badator oso-osorik beteta edo harekin batera ez bada aurkeztu ezarritako dokumentazioa, orduan organo instruktoreak instruktoreak eskatuko dio erakunde eskatzaileari akatsa hamar (10) eguneko epean (jakinarazpena egin eta biharamunetik zenbatzen hasita) konpon dezala; eta ohartaraziko dio hala egiten ez badu bere eskaeran atzera egindakotzat joko dela eta prozedura amaitutzat joko dela, 39/2015eko Legearen 21., 68. eta 94. artikuluekin bat.

#### **15. artikulua.— Instrukzioa**

1. Eskualde Garapenerako Zerbitzuak, organo instruktoreak, egiaztatuko du ea betetzen diren artisautzako erakunde izaera lortzeko behar diren baldintza guztiak.

2. Nolanahi ere, organo instruktoreak eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar duen dokumentazio eta/edo informazio osagarri guztia eska diezaieke erakunde eskatzaileei.

3. Artisautzako erakundeen kasuan, ebazpena eman aurretik, artisautzako erakunde eskatzailearen tailerrera bisita egingo dute BEAZ SAU foru-sozietate publikoko langileek (sozietate hori Ekonomia Sustatzeko Sailari atxikita dago), egiaztatzeko ea egokiak diren erakundeak erabilitako prozesuak eta ekoiztutako artisautzako produktuak. Bisita horren bidez egiaztatuko da lantegia edo ekoizpen-zentroa egokituta dagoen lanak eskatzen dituen higiene- eta babes neurrietara; horrez gainera, artisauek jarduerarako beharrezkoak diren baimen guztiak izan beharko dituzte, egiten duten jardueran aplikatzekoa den araudi espezifikoaren arabera.

#### **16. artikulua.— Ebazpena**

1. Organo instruktoreak ebazpen-proposamena igorriko dio Ekonomia Sustatzeko Saileko foru diputatuari, dagokion foru-aginduaren bidez ebazpena eman dezan.

2. Erakunde interesdunari jakinaraziko zaio ebazpena, 39/2015 Legearen 40. artikulutik 46.era (biak barne) ezarritako baldintzetan.

3. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari, eta haren aurka, bulego birtualaren bitartez, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ekonomia Sustatzeko Saileko foru-diputatuari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera. Ezingo dira errekurtso biak aldi berean jarri.

4. Inskribatzeko espedientea ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da eskabidea Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualean sartzen denetik. Eskumena duen organoak ebazpen espresua eman behar badu ere, epea igaro eta interesdunari ebazpena jakinarazi ez bazaio, eskabidea ezetsitatzat joko da administrazio-isiltasunez, 39/2015 Legearen 21. eta 24. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

#### **17. artikulua.— Ezerezteak**

1. Inskribatutako entitate edo elkarteek edozein momentutan eska dezakete inskripzioa ezerezteko.



2. Dekretu honetako 10. artikuluan ezarritako baldintzetako edozein ez betetzeak, Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan inskripzioa, ofizioz ezereztea ekarriko du.

3. Halaber, 19. artikuluan ezarritako betebeharra, Ekonomia Sustatzeko Sailari erregistratutako datuetan gertatzen den edozein aldaketa jakinaraztekoa, ez betetzeak ekarriko du Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan inskripzioa, ofizioz ezereztea ekarriko du.

4. Inskripzioa ofizioz ezerezteak berekin ekarriko du Erregistroan berriro inskribatu ezin izatea, ezereztearen datatik urtebete igaro arte.

5. Interesdunari inskripzioa ezereztu dela jakinaraziko zaio, eta zer errekurtsio jar daitezkeen adieraziko zaio, 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritakoarekin bat.

#### V. KAPITULUA

#### INSKRIPZIOAREN ONDORIOZKO ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

##### **18. artikulua.— Inskripzioaren ondoriozko eskubideak**

Artisautzako erakundeek eta elkarteek nahitaez inskribatu behar dute erregistro honetan eskubide hauek izan nahi badituzte:

- a) Bizkaiko artisautzako erakunde edo elkartearen balioespena.
- b) Ekonomia Sustatzeko Sailaren Artizautza Sustatzeko Programako deialdietan parte hartzea.
- c) Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatzen dituen Bizkaiko azoketan parte hartzea, ezartzen den eran.
- d) Ekonomia Sustatzeko sailak antolatu edo diruz laguntzen dituen ikastaro, hitzaldi eta antzeko ekitaldietan parte hartzea.

##### **19. artikulua.— Inskripzioaren ondoriozko betebeharrak**

1. Erregistroan inskribatzeak berekin dakar inskribatutako erakundeak Ekonomia Sustatzeko Sailari jakinaraztea erregistratutako datuetan gertatzen den edozein aldaketa, aldaketa gertatu eta hilabeteko epean; edonola ere, administrazioak ahalmena du Erregistroan dauden datuak ofizioz aldatzeko, aurretik interesdunari 10 eguneko entzualdia emanda.

2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera, inskribatutako erakunde edo elkarteek lege horretan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu beharko dituzte, beren lanaren barruko estatistikak genero-ikuspegiaren arabera egokitu beharko dituzte, ez dute hizkera sexistarik erabiliko, eta emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua bermatu beharko dute erazten diren batzordeetan eta lantaldeetan.

##### **20. artikulua.— Erregistroan izena eman izanaren egiaztagiria**

Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan inskribatutako erakundeek Bulego Birtualaren bidez eskuratu ahal izango dute baldintza hori justifikatzen duen agiria, Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiak igorrita.

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK

##### **Xedapen Gehigarri Bakarra.— Arau subsidiarioak**

Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako eta prozedurari dagokionez, 39/2015 Legean ezarritakoa aplikatuko da.

**XEDAPEN IRAGANKORRAK****Lehenengo Xedapen Iragankorra. — *Foru-dekretu honen aurretik egindako inskripzioek indarrean jarraitzea***

Uztailaren 24ko 107/2018 Foru Dekretuan araututako Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroan inskribatutako artisautzako erakundeen inskripzioek indarrean jarraituko dute foru-dekretu honen bidez araututako Erregistroan.

**Bigarren Xedapen Iragankorra. — *Dekretu hau indarrean jartzen denean ebatzi gabe dauden inskribatzeko eskabideak***

Uztailaren 24ko 107/2018 Foru Dekretuaren babesean Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroan inskribatzeko aurkeztu diren eskabideak ebatzi gabe badaude dekretu hau indarrean jartzen denean, eskabideok dekretu honetan ezarritakoaren arabera ebatziko dira.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEAK****Xedapen Indargabetzaile Bakarra. — *Aurreko arauak indargabetzea***

Indargabetuta geratzen dira foru-dekretu honetan eta, bereziki, uztailaren 24ko 107/2018 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat ez datozen edo haren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko arau guztiak.

**AZKEN XEDAPENAK****Azken Xedapenetako Lehena. — *Ahalmenak eskuordetzea***

Ekonomia Sustatzeko foru-diputatuari baimena ematen zaio foru-dekretu honetan aurreikusitakoa garatzeko, betearazteko eta ezartzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken Xedapenetako Bigarrena. — *Indarrean jartzea***

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru-dekretu hau.

Bilbon, 2021eko azaroaren 30ean.

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua,  
AINARA BASURKO URKIRI

Ahaldun Nagusia,  
UNAI REMENTERIA MAIZ